

Teknologia berriak irakaskuntzan

- Hernaniko ikastetxe guztiak ari dira poliki poliki ordenadoren mundura egokitzen
- Elizatxoko ikastola Gipuzkoako 5 zentro piloeten artean sartu dute.



Irakaslea esplikatzeko; ikasleak biharko egunari begira. Hori da atentzioa!

HEZKUNTZA Sailak laguntzak ematen ditu teknologia berrietan sakontzen duten ikastetxeentzat. Aurten Elizatxoko ikastolak bere proiektua aurkeztu du; Euskal Autonomi Erkidegoko (Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba) 18 ikastetxerekin batera zentro *piloto* (ainzindari) izendatu dute.

GERORAKO HEZITZEN Matematikak, ingelesa... ordenagailu bidez ikasi litezke. Programak oraindik gutxi dira euskeraz, baina, poliki-poliki ari dira osatzen (Eluyar, Ikastolen Elkartea... eta ikastetxeak berak ere bai). Erronka: umeak ordenagailu aurrean arrotz ez sentitzea.

GELETAN INTERNETA Orain arte ordenagailu zaharrrak izan dituzte klase guztietan, aukera gutxikoak; eta gela berezi bat hobeagoekin. Orain, internet eta guztiko ordenagailu berriak jarriko dituzte klasero; hori lehen hezkuntzan. Haur hezkuntzan, berriz, gela berezietan. □

‘BERRIAK’ MERKATARI ETA TABERNARI ELKARTEA

“Errespetatu: tabernak isteko ordutegia eta, ordu txikietan, herritarren deskantsua”

- ‘Txotx’ denboraldiari begira dei berezia egin dute parrandak eta herritarren deskantsuak elkarri gaitzik ez egiteko
- Ordutegi berria oraindik zehazteko dago.

TXOTX garaia hasi da eta txotxarekin batera normalean baino jende eta mogimendu gehiago ere bai herrian. Jakinakoa da horrek kalean zer dakarren.

JENDEA SENSIBILIZATU Lehen ere, urtero egiten da zerbait txotx bolaran: diptikoak... Aurten bost puntuko nota kaleratu dute jendea sensibilizatu eta hilabete hauetako mogimendu guztia ahalik eta modu eramangarrienean antolatzeke. Bere hitzetan: “parranda eta elkarbizitzaren artean oreka lortzeko”. □

BERRIAKEK TXOX GARAIRAKO

- Tabernak isteko ordutegia errespetatu.
- Goizeko ordu txikietan, herritarren atsedenaldia errespetatu.
- Kristalezko ontziak (baso, botilla...) ezin dira tabernetatik atera.
- Komun publikoak erabili; hor daude herrian barrena jarrita.
- Udaltzaingoaren oharrak errespetatu: kotxeak eta autobusak herrian aparkatzeko laguntzen ariko dira. □

Gipuzkoako ‘Trialsin’ txapelketa Hernanin

- Fagollagan da, igandean
- Herritarrak aterako dira, baina, gutxi; gazteenen mailan
- 10:00etan

BIZIKLETA gainean zer egin litekeen ez dakienak igandean Fagollagan du zita. Txirrindularitza Federazioak antolatuta, Gipuzkoako *Trialsin* txapelketa bigarren proba da hau. Zein da kontua? Jarritako zirkuitoa hanka lurrera bota gabe pasatzea. Gutxienez botatzen duena txapeldun. □

Txantxangorriko mus txapelketan apuntatzeko azken eguna gaur da

- Bikoteka eta banaka, bietara jokatu da
- Datorren astelehenean hasiko da.

TXANTXANGORRI elkarte-ko mus txapelketa hastera diojoa. Aurten, dagoeneko bikotetan 24-ek eman dute izena eta banakakoetan 16-ek. Parte hartzea, ordea, pixkanaka behera diojoa. Agustin Urretabizkaiak elkartekideak esan digunez mus txapelketetan gero eta jende gutxiago apuntatzea “leku guztietan pasatzen da: hasieran kriston jende pila eta pixkanaka gutxitzen”.

Hala ere, iaz 30 pareja izan

ziren eta 16 banako. Orduko irabazleak Daniel-Basilio izan ziren eta Pedro-Alberto anaiak bigarren. Buruz buru, Migel Montenegrok irabazi zuen eta Jose Mari Ormazabal bigarren.

ASTELEHENETIK OSTEGUNERA

Txapelketa datorren astelehenean hasiko da eta partidak astelehenetik ostegunera jokatuko dira. Ordua: 20:30etatik 22:00etara. □

UTZI HERNANI PAKEAN

Larunbatean kontzertua Oialumen

- ‘Etzakit’, ‘Selekta kolektiboa’ eta ‘DJak’
- Dirua fi dantzak ordaintzeko da
- Gauerdian (24:00etan).

ASTEBURUKO ZINEA BITERIN

‘Los Angeles de Charlie’

- Helduentzat. Ostirala: 22:30etan; Larunbata: 19:30etan eta 22:30etan; igandea: 19:30etan.

‘Karramarro uhartea’

- Umeentzat. Larunbata eta igandea: 17:00etan.



Kardaberaz, 39
Tel: 943 55 27 87
HERNANI



**GARAJE ITXIAK
‘OBLATOS’ETAN
SALGAI**

Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37

Miramongo Zientzia Museoak 4200 bisitari izan ditu

- Bi zati ditu: Iraunkorren Zientzia museo dago; aldi baterakoan, dinosaurioak
- Urtarrilaren 17an ireki zuten.



Bisitari bat bonbila haundi baten indarra neurtzen.

MIRAMONEN *Kutxagunea* zientzia museo ireki berri da; arrakasta onarekin gainera. Lehen ideia Felix Ares Kutxako informatika buruarena izan omen zen: *Txip* txartelaren inguruan zientzia museo txiki bat egin nahi zuen. Hura atzera gelditu eta Arantzadik planetarioa jartzea proposatu zion Kutxari. Zientzia 21 taldeak (unibertsitate eta ikastetxeetako irakasleak) egin zuen

museoaren proiektua. Orain biak batean (planetario eta museo) jarri dituzte Miramonen.

MUSEO IRAUNKORRA

Energia gela, argi jokoak, mekanika gela, umeen gela, komunikazio gela, zentzumen eta sentikortasun gela... zientzia modu errazean esplikatu dago, nor bere begiekin ikusteko moduan.

ORDUTEGIA

- Asteartetik larunbatera: 10:00-18:00.
- Igande eta jaiegunetan: 11:00-18:00.

PREZIOAK:

- **Helduentzat:** Iraunkorra 700 Pta. Aldi batekoa 450 Pta.
- **4-7 urte bitartekoentzat:** Dena 350 Pta.
- **4 urte artekoentzat:** Guztia debalde.
- **Taldeak (lagun kuadrilak ez):**
 - Eskola umeak: Dena 500 Pta.
 - Helduak (minimo 15 lagun): Dena 700 Pta.

ALDI BATEKO MUSEOA Apirilerarte dinosaurioak egongo dira, Londresko museotik ekarriak. Parte honetan aldikako erakusketak egingo dituzte.

PLANETARIOA

Behean pantaila haundi bat dago. Jendeak handik ikusiko ditu satelitearen eta periskopioaren irudiak. Oraindik ireki gabe dago parte hau. □

■ HITZ BITAN



Hara, kotxea bere kasa nola gelditu litekeen!

✓ ISTRIPUA

Kotxe bati atzeko parte lehertu zitzaion, bere kasa. Gezurra dirudi, baina, hala gertatu zen. Argazkian ikusten duzuen kotxe hau Elkano eta Larramendi kaleko iskina horretan zegoen aparkatuta. Zortziak aldera, udaltzainek kapoteko kristala eta kapotaren beheko parte txiki-txiki eginda bilatu zuten. Nonbait, kotxe horiek kapota altxatzeko sistema hidraulikoa dute. Haize kolperen batek joka sistemako zerbaitek huts egin, sistema saltatu eta *plast* dena lehertu. Kotxe jabea harrিতa gelditu omen zen. Zein ez?

✓ UDAL AURREKONTUAK

2001garren urteko aurrekontuak otsailean onartuko dira. Udal aurrekontu parte hartzaileak joan den irailean hasi ziren egiten. Urte bukaerarako egin beharreko batzarrak egin eta orain oposizio alderdien eskuetan daude ezer kendu, erantsi edo enmendakinak egiteko. Gero, Hazienda batzordera joango dira, eta handik plenora. Hori otsailaren erdialdera izango da.

✓ MUSIKA ESKOLA

Gaur arratsaldeko kontzertua suspenditu egin da. *Eztanda* taldea zen gaur arratsaldean Plaza Berrin jotzekoa, Musika eskolak antolatuta. Arazo teknikoagatik, ordea, atzeratu egin da dena. Kontzertua izango da, baina, otsailean. □

■ SENIDEAK

Hileroko enkartelada gaur arratsaldean

■ Gudarien plazatik aterako dira, 20:00etan. SENIDEAK elkarteak preso eta errefuxiatu politikokoak Euskal Herriara ekartzeko eskatuko dute gaurko kontzentrazio isilean. Senideak hileko azken ostiralean egiten du kontzentrazio isil hau. Hernaniko 12 preso politiko daude Frantzia eta Espainiako kartzeletan. Errefuxiatuak, berriz, 13.

Bihar, berriz, Lasarten, krossa dela eta, eskualdeko enkartelada egingo du Senideak. 12:00etan hipodromoko zubian.

ANGEL PIKABEARI BOST URTE

Pariseko epaitegi batek bost urteko kartzela zigorra jarri dio Angel Pikabea ereñotzuarrari ETAko muga arduraduna izatea leporatuta. □



Senideak, kontzentrazio isilean.

HERIOTZAK

Andres Torres Ruiz

Asteazkenean hil zen 69 urte zituela

Julian Lopez Rubio

Ostegunean hil zen 37 urte zituela. Hileta, gaur 19:00etan, Urnietan, Jehovaharen Lekukoaren aretoan.

IRRATIAK

(**F.M. 99.2**): 12:00etan: *Zabaltzen* distribuidorako ordezkari batekin hizketan. 12:30etan: Ange Duhalderi elkarrizketa.

IRRATSAIO BEREZIAK: (**F.M. 99.2**) Batasuna prozesua: 15:30etan, Jose Antonio Egido, (Igaita eta mailua); 16:00 etan, Aurrene Astibia (Bateginez).

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

☎ FARMAZIAK

- ▶ Eguez: Bulnes Etxeberri, Florida ☎ 943 557738
- ▶ Gaez: Gil Lasarte. Nagusia, 24 ☎ 943 361529

ASTEBURUKO PARTIDUAK (ESKOLARTEKO KIROLA)

■ BOLEIBOLA

Neska kadeteak: (Donostian)

Fortuna - Langile

Neska alebinak: (11:00etan Kirold.)

Langile B-Elizatz B

Neska alebinak: (11:30etan Kirold.)

Langile A-Urumea

■ **ESKUBALOA**

Mutil alebinak: (Urnietan)

Egape - Urumea

Mutil alebinak: (Urnietan)

Presentación - Elizatz B

■ FUTBOLA

Neska Kadeteak: (Donostian)

Langile-Beti Gazte

Mutil infantilak: (09:00etan Zubipen)

Langile-Laskurain

Mutil infantilak: (Alegin)

Aralar-Urumea

■ PELOTA

Benjaminak: (09:15etan Kirold.)

Inmaculada-Urumea

Benjaminak: (10:15etan Kirold.)

Langile A-Langile B

Benjaminak: (11:15etan Kirold.)

Elizatz A-Elizatz B

■ SASKIBALOA

Benjaminak: Elizatz B- Langile A

Benjaminak:

Urumea - Elizatz A

Benjaminak:

Langile C - Langile B

Alebinak:

Inmaculada 15-Langile A


91

Alebinak:

Langile B-Mundaiz B

www.hkronika.com

Kronika Interneten



ITXASPE

ARRANDEGIA

Antziola 5 - Tel. 943 330 365
20120 HERNANI